

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, SALAKETETAN TAO-KO AGENTEEN IZENAK AGERTZEA DELA-ETA

Amaia Martin Garin Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2016ko maiatzaren 16an GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAn egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

TAO zerbitzuko langileek salatu dute Udalak arau-hausteren bat egin dutenei bidaltzen dizkien isunetan beren izena ageri dela eta, hortaz, arau-hausleek ez dute inolako oztoporik salaketa jarri duen agentea identifikatzeko. Hori langile horien kaltetan izan daiteke.

Bestalde, aditzera eman dutenez, duela hilabete bat baino gehiago bildu dira Mugikortasuneko eta Garraioeko zinegotzi ordezkariarekin eta honek esan die egoera aztertzen ari direla. Bestalde, hainbat proposamen egin dituzte, isunetan beren identifikazio pertsonala ez agertzeko. Beren esanetan, hori Donostian baino ez da gertatzen.

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun ziguten langileek eskatutako neurriak hartzea oso zaila dela, indarrean dauden arauak direla-eta. Hala eta guztiz ere, Donostiako Udala da inguruko udal bakarra isunetan salaketa egin duenaren izen-abizenak jasotzen dituen. Are gehiago, Bilboko Udalak TAO-ko agenteek eskatutako prozeduraren arabera jokatzeko du jada.

Bestalde, CCOO sindikatuaren txosten juridiko bat eskuratu dugu eta, bertan esaten denez, ez dago inolako trabarik TAO zerbitzuko langileek eskatzen duten moduan jarduteko.

Horiek horrela, kontrol mozio hau aurkezten dugun

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txosten juridiko bat egiteko, TAO-ko langileek egindako proposamenak bideragarriak diren aztertzearen, hala erabaki ahal izango baita ea posible den agenteen izenak ez jartzea Udalak bideratzen dituen salaketetan, horrek ekar ditzakeen arazoak saihestuz.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

**irabazi**  
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián  
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Izpta.: Amaia Martin Garin  
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea